

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

77/2025 Mozioa, urriaren 22koa, Palestinan ematen ari den genozidioa gelditze aldera, Arabatik ahalik eta presio handiena egiteari dagokionez

Arabako Batzar Nagusiek, 2025eko urriaren 22an egindako osoko bilkuran, honako mozio hau onetsi zuten:

77/2025 Mozioa, urriaren 22koa, Palestinan ematen ari den genozidioa gelditze aldera, Arabatik ahalik eta presio handiena egiteari dagokionez.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote Arabako Foru Aldundiak, Israelgo enpresekin edo Palestinako biztanleriaren okupazio edo errepresio ilegalekin lotutako jardueretan parte hartzen duten enpresekin dituzten harreman ekonomiko, komertzial edo kontraktualei buruzko inbentario eguneratua berrikusi, eta beharrezkoa bada prestatu eta argitaratzea, nazioarteko zuzenbide humanitarioarekin eta Nazio Batuen ebazpenekin bat etorritik, harreman horiek amaitzeko xedez, indarrean dagoen araudiari jarraikiz.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote kontratazio publikoak nazioarteko lan arauak eta nazioarteko zuzenbide printzipioak errespetatzen dituela bermatzea, gisa esku-bideen arloko gizarte-klausuletan eta ardurazko jardunbideetan oinarrituz, Arabako Foru Aldundiaren konpromiso instituzionalarekin eta Europar Batasunaren estandarrekin koherentzian.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 22a

Lehendakaria

IRMA BASTERRA UGARRIZA